

PLaza

Espazioaren eta denboraren ekuazioa

Eduardo Txillidaren 'Haizearen orrazia' ofizialki inauguratuko dute igandean, egin eta 30 urtera. «Gizaki guztiei» eskaintzeko sortu zuen gaur hain ezaguna den artearen espazioa.

ARANTZAZU MUÑOZA

Donostiako Ondarreta hondartzaren amaieran dago *Haizearen orrazia*, olatuek eta haizeak lur-rrarekin bat egiten duten tokian. Galderen eta erantzunen espazioa da. Nerabea zenetik joan izan zen Eduardo Txillida (1924-2002) bertara: «Olatuak nondik ote zetozen galdetzen nion maiz neure buruari. Bertan zerbait egingo nuela jakin baino askoz lehenago maitemindu nintzen leku hartaz... Eskultore izan aurretik... 14 urte-edo izango nituen». Eta leku hartaz maitemindu zen egunetik nahi izan zuen leku hura artearen espazio bihurtu: «Lekua bera da lanaren benetako egilea; nik egin dudana bakarrik aurkitzea izan da. Haizeak, itsasoak, harkaitzek... Horiek guztiek eragin handia dute. Espazioak eta denborak balio erantsia ematen diote lanari. Nik egin dudana lana da, baina nik egin ez dudana ere bai». Horregatik nahi zuen *Haizearen orrazia* bere herritarrekin partekatu: «Nik ez dut nahi ezer niretzat, nik espazio hori munduko gizaki guztiei eskaini nahi dieb», hala esan zuen Txillidak lana hastekotan zebilela.

1939an Madrilén arkitektura ikasten hasi aurretik, *Haizearen orrazia*-ren ideia buruan zuela zebilen Txillida. Lau urtera, ordea, utzi egin zituen ikasketak: «Arkitekturan frenoak jarri izan dizkidana erakusteko modua izan da. Horregatik utzi nituen ikasketak, nik arkitektura ulertzeko nire modua neukan. Ikasketak utzi eta gero asko marraztu nuen, eta benetan serio. Ongi marrazten nuen, azkar, errazegi akaso. Behin neure buruari esan nion: 'Hau ezin da artea izan, errazegia da'». Orduan, ezkerreko eskuarekin hasi zen marrazten Txillida. Bere buruari erronka berriak jartzen zizkion: «Ez dakidan hori egiten saiatu izan naiz beti. Artea egin gabe dagoenari lotuta dago, izan litekeela ustez ez dugunari. Gugandik kanpo da-



Eduardo Txillida *Haizearen orrazia* obrako piezei begira, eraiki aurretik. BERRIA

goen zerbait da, eta guk bilatu egin behar dugu».

1943an, Txillida Realeko atezain zen. Bartzelonak eta Real Madril fitxatu nahi izan zuten. Baina Zorrillan Valladoliden kontra jotzen ari zirela, lesioa izan eta futbola utzi behar izan zuen. Futbole-tik erretiratu, eta Parisera joan zen Txillida; 1950. urtea zen. Han hasi zuen *Haizearen orrazia* bere herritarrekin partekatu: «Nik ez dut nahi ezer niretzat, nik espazio hori munduko gizaki guztiei eskaini nahi dieb», hala esan zuen Txillidak lana hastekotan zebilela.

1939an Madrilén arkitektura ikasten hasi aurretik, *Haizearen orrazia*-ren ideia buruan zuela zebilen Txillida. Lau urtera, ordea, utzi egin zituen ikasketak: «Arkitekturan frenoak jarri izan dizkidana erakusteko modua izan da. Horregatik utzi nituen ikasketak, nik arkitektura ulertzeko nire modua neukan. Ikasketak utzi eta gero asko marraztu nuen, eta benetan serio. Ongi marrazten nuen, azkar, errazegi akaso. Behin neure buruari esan nion: 'Hau ezin da artea izan, errazegia da'». Orduan, ezkerreko eskuarekin hasi zen marrazten Txillida. Bere buruari erronka berriak jartzen zizkion: «Ez dakidan hori egiten saiatu izan naiz beti. Artea egin gabe dagoenari lotuta dago, izan litekeela ustez ez dugunari. Gugandik kanpo da-

tik baino. Orduan, gainera, Donostiako agintea frankista kontserbadoreen eskuetan zegoen, eta haiek arte garaikidearen eta abstraktuaren kontra zeuden; modernotasunaren zantzua zuen guztia-aren kontra. «Ezer ez ukitzea eta zegoena zegoen moduan uztea» zen haien lelo nagusia. Interes handiagoa zuten Donostian eraikiko zituzten iturri-rik, arteaz baino. «Iturriak zertarako? Euria besterik ez du eta egin-ten Donostian», esan ohi zioten elkarri Txillidak eta Gantxegik. Kontrako iritzi guztien gainetik, Txillidak berean jarraitzen zuen tinko: «Haizeak orraztuta sartu behar du Donostian». Lana jarri eta gero ere izan zen kontrako ekintza-rik. Cloc taldeak behin eta berriz margotu zituen Txillidaren *orrazia*ak, pintura zuri-urdinez.

Bere lana erakusteko Donostian erakusketa bat egiteko eskatu zioten Txillidari donostiarrak batzuek.

Frankisten eskuetan zegoen Donostia; arte garaikide eta abstraktuaren kontra zeuden haiek

Plazatik gertuen dauden bi piezek iragana irudikatzen dute; urrunen dagoen piezak, berriz, geroa

70eko hamarraldi hasiera zen. Eskultoreak zera erantzun zien: «Erakusketa iraupen gutxikoa da; nahiago dut herritarrentzat izango den eskultura bat egin». 1974an, Francisco Lasas alkatea, frankismo-ko azkena, boterera iritsi zenean, Udalak baiezkua eman zion Txillida eta Peña Gantxegiren proposamenari. Horrek ez zion grazia handirik egin zenbait herritarri. Askok Ondarreta hondartzaren amaieran aparkalekua egitearen alde baitzeuden. Oposizioa gustura uzteko zenbait iturri ere eraiki-ko zituela hitzeman behar izan zuen Udalak.

SAILEKO HAMABOSGARRENA. «Hasieran ez dut ia ideiarik bereizi ere egiten, baina ideia atzematen dudanean, ez dut atzera libre uzten; orduan ideia heltzen uztea bakarrik geratzen zait», Txillidak *Haizearen orrazia*-ri buruz esana da. Izan ere, 21 lan egin zituen ideia beraren inguruan. 1952an, abiatu zenean, irteerarik gabeko kalea irudikatu zuen: eskaioa erabili zuen hartan. Hurrengo *Haizearen orrazia* material berberarekin dago egin, baina gainontzean ez dauka zerikusirik lehenengoarekin. Hirugarrena, 1965ean egin, Unescoren Parisko egoitzarako (*Haizearen orrazia IV*) egin zuenaren aurrekoa da. 1966an, Txillida

materialen inguruan hausnartzen hasi zen: «Zergatik ez altzairua?». Igeldopeko arrokarako egokia izango zenaren bila 15 saio egin zituen Txillidak: *Haizearen orrazia XV* da Ondarretako hondartzaren amaieran dagoena. Baina Txillidaren ideia ez zen horrekin agortu eta sailerako beste sei eskultura ere egin zituen.

Hasierako proiektuan pieza bakarra aurreikusi zuen. Eskultoreak, ordea, ez zuen indar guztia pieza bakarrean jarri nahi. Hala, azkeneko momentuan beste bi gehitu zizkion hasierako bakarrari. «Ero-keria da itsasoaren, haizearen eta arroren handitasunari aurre egin nahi izatea»; horregatik jarri zituen hiru. Indarberitu egin zuen hirukoak Txillida: «Dena ondo ateratzen zait. Aurreko alkateak proiektua atzera botatu zuen, eta horri esker, hemen hiru pieza jartzea beharrezkoa dela konturatu naiz».

Santa Klara uharterantz begiratu zuen. Arroka handia ikusi zuen han. Hondartzaren amaierako arroaren jarraipena behar izan hark. «Tentsio horizontala bi muturren artean». «Tentsio» hura nola edo hala adierazi beharra zekala erabaki zuen, eta bi pieza handi jarri zituen horretarako. Plazatik gertuen dauden bi pieza horiek iragana irudikatzen dute. Memoriaren isla dira; natura eta gizakia bereizi aurretik guztia bat izan zelako oroigarri. Urrun dagoen piezak, berriz, geroa irudikatzen du. Hura triangeluaren azken elementua da, osteratzen sinboloa. Zerura irekita dago pieza hori: eskaintza edo eskari gogor bat iradokitzen du. Ardatz bertikala duen pieza hori da lanaren gakoa, espazio-ko elementu sakratua. «Nire eskultura ekuazio baten emaitza da. Kontua da zenbakiak beharrean elementuak dauzkala eskultura horrek: haizea, itsasoa, malkarrak, osteratza eta argia. Altzairuaren formak naturako indarrekin nahasten dira eta euren artean hitz egiten dute. Galderak eta erantzunak dira. Euskaldunen eta euren nazioaren sinbolo izatea deliberatuko zuten, agian».

1974an agindu zuten proiektua: 22 milioi pezetako aurrekontua egin zuten eskulturrentzat, eta 21 milioikoa eskulturren atarian dagoen plazarentzat. Legazpiko Patricio Etxeberriari eskatu zizkion piezak: 215 x 177 x 185 zentimetroko eta 10 tonako hiru pieza. «Espazio horretara ezin da joan txorakeriekin». Antzinako Greziako plazen antzeko ataria egin zien Peña Gantxegik *orraziei*. Eskulturrak amaituta, arroketan itsatsi behar ziren; bi, gainera, urez inguratuta koetan. Jose Ellosegi igeniariak zubi erraundun bat eraiki zuen hartarako.